



MAIATZEKO LOREAK

Bat-batean maiatza lehertu zen
azahar zuri eta larrosa oriz.
Eta ni heriotzaren itzaletik
doi ihestutako bizidun hunkitua nintzen.
Goizaldeko argiaren hesparru isilean
harriturik zantzutzen nituen
baratza ihintzua eta xorien psalmoak,
nere begietan pausaraziz
bizi berrituaren aztarrenak.
Eta ametsak berriro
ekialdeko itsasoruntz neraman,
behin ukatu zitzaigun aberri urrunera,
baina etzuen iadanik ene arimak
arrenkura eta herriminik,
arrotz bait nintzaion orain
bizitza berari
doainen azken ondarrak
apalki dastatzen nituen
egunsentiko ordu mirestuan.

Xabier Lete

(FLORES DE MAYO)

Súbitamente estalló mayo / en blanco azahar y amarillas rosas. / Y era yo conmovido
caminante / generosamente redimido de sombría muerte. / En el silencioso ámbito del
alba / presentía sorprendido / el húmedo huerto y los psalmos de las aves, / demorando
en la mirada / los signos de una vida renovada. / Y el sueño otra vez me transportaba /
hacia el mar luminoso de oriente, / a la lejana patria que nos fué negada, / pero mi alma
no albergaba / nostalgia ni resentimiento, / pues extraña me era ya / la vida misma / en
el instante milagroso / de ensalzar humildemente / los restos de los dones otorgados.